



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Marrazketa Artistikoa II

USE 2024

www.ehu.eus



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2024ko EZOHIOA

MARRAZKETA ARTISTIKOA II

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

DIBUJO ARTÍSTICO II

AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

**Azterketa honek bi aukera ditu: A eta B.
Egin soilik aukeretako bat.**

Ez ahaztu azterketa-orrialde guztietan kodea jartzea



A AUKERA. (90 min)

**IRUDI HISTORIKO BAT AURRETIK IKUSITA MARRAZTEA, PROFIL
BATETIK ABIATUTA**

Profilaren informaziotik abiatuta, irudi bera marraztu aurretiko bista batean. Ikusten ez duzun profilaren partea sormenaren bidez irudikatu beharko duzu.

Emandako irudia DIN A4 bat da, orri nagusiaren (50x35) erdia hartzen duena (gutxi gorabehera). Paper horretan marraztu behar da, emandako irudiaren tamainari eutsiz.

Erabili beharreko teknika librea izango da, eta prozedura lehorrak edo hezeak erabili ahal izango dira, baita nahasiak ere. Halaber, proba hau emandako 2B grafitoarekin bakarrik egin ahal izango da, hala erabakitzen bada.


B AUKERA. (90 min)

HIRU ARKATZEZKO MARRAZKIA, ARGAZKI BATETIK ABIATUTA

DIN A4ko koloretako argazki batetik abiatuta, argilun nabarmena duena, eskatzen da DIN A3 batean "trois crayons" teknikarekin marraztea.

Ikasleari emango zaion orri koloreztatu batean (beixa edo marroi argia) marraztu beharko da emandako irudia, arkatzak, klarionak edo kretak erabiliz, gutxienez kolore argi batekin (zuria edo antzekoa), sanginarekin eta kolore ilun batekin (beltza edo antzekoa). Laugarren kolore bat ere erabil daiteke (sangina iluna esan dakioke), ikasleak hala nahi badu.

B AUKERA





MARRAZKETA ARTISTIKOA II / DIBUJO ARTÍSTICO II

A AUKERA. IRIZPIDEAK

	HASIERAKOA			BAXU-ERTAINA			EGOKIA			BIKAINA		NOTA
Neurriak eta proportzioak egokitzea. 2,5 P	0	0,25	0,5	0,75	1	1,25	1,5	1,75	2	2,25	2,5	
Osatu beharreko datuen sormena. 2,5 P <i>*Oharra</i>	0	0,25	0,5	0,75	1	1,25	1,5	1,75	2	2,25	2,5	
Aukeratutako teknikaren erabilera egokia eta menderatzea. 2,5 P	0	0,25	0,5	0,75	1	1,25	1,5	1,75	2	2,25	2,5	
Bolumenaren, irudiaren eta hondoaren irudikapena. 2,5 P	0	0,25	0,5	0,75	1	1,25	1,5	1,75	2	2,25	2,5	

OHARRAK / AIPAMENAK / NABARMENTZEKOAK

**Oharra:* Emandako ereduaren irudikapen koherente bat eta ereduari jarraitzen diona egitea baloratuko da (derrigorrezkoa), baita proposamen kreatiboagoak ere ; adibidez, mugimendu artistiko bati keinu egiten diotenak edo irudikapen ez-naturalista bat egiten dutenak (aukerakoa ikusten ez den profila irudikatzen).

